

Martxoaren 28an,  
18:30ean




## Lucien Etchezaharreta

Mende erdia iparraldeko literaturan

Literatura zatien irakurleak :

**Kattalin Totorika eta**

**Miren Aranburu**



Sortzez Hazpandarra eta Baionan bizi, Lucien Etchezaharreta, aspaldi handian euskal munduko eragile suharra da. Kazetaria, irratilaria eta "Maiatz" literaturara aldizkariaren zuzendaria. Euskal literatura orokorki eta iparraldekoa bereziki errotik ezagutzen ditu. Beti bere zazpi egin ahalak egiten ditu idazle berriak sustengatzeko eta "xaharrak" akulatzekeo...



Azken berrogeita hamar urte hauetan euskal baratzean nolako loreak agertu diren aipatuko digu, Kattalin Totorika eta Miren Aranburu aldean ukanen dituela idazle zenbaiten zatiak gozarazteko.

*Lucien Etchezaharreta zertaz eta nortaz mintzatuko den, besteak beste :*

*"Herria" astekaria eta "Gure Herria" aldizkaria zutabe zirela, Bigarren Munduko Gerlaren ondoko idazleen lanak agertu ziren Iratzeder, Oxobi,*

*Larzabal eta Lafitte kalonjearen inguruan. Zuberoko Pastoralak, denbora berean, bihurtu bat hartzen du Etxahun Irurikoarekin. 1960eko hamarkadan belaunaldi berria sortzen da, Manex Erdozaintzi-Etxart, Jean-Louis Davant, Eñaut Etxamendi eta Daniel Landartekin. Prentsatik ateratzen dira ere : Jean Hiriart-Urruty, Emile Larre eta Janbattit Dirassar ; Pierre Narbaitz kalonjearen lanekin batean eta Marijan Minaberry andereak idatzi ipuinekin literatura berritzen zelarik.*

*80eko hamarkadan, beste belaunaldia dator. Hauen artean, Itxaro Borda, Henriette Aire, Auxtin Zamora, Aurelia Arkoxa, Manex Lanathua, Jakes Ahamendaburu, Ur Apalategi. Antzerki idazleak direla : Guillaume Irigoyen, Pantzo Hirigaray, Antton Luku eta Mattin Irigoyen."*



## hitzak mintzo Cycle de conférences

Dans le cadre de son programme Batekmila, l'Institut culturel basque organise 4 conférences en basque au Centre "Lapurdi" d'Ustaritz, chaque mardi du mois de mars à 18h30.

**Mardi 7 mars,**

"De l'oralité...", par Andoni Egaña, bertsulari, improvisateur, vainqueur pour la 4<sup>e</sup> fois consécutive du Championnat du Pays Basque

**Mardi 14 mars,**

"Chants souletins, trésors de l'oralité" par Jean-Mixel Bedaxagar, chanteur, fin connaisseur de la culture souletine

**Mardi 21 mars,**

"L'oralité et la nouvelle poésie", par Kirmen Uribe, auteur de poésie, de roman, d'essai et de théâtre. Traducteur en basque de poètes étrangers. A reçu le "Prix National de la Critique" en Espagne.

**Mardi 28 mars,**

"L'apport des auteurs du Pays Basque nord à la littérature basque" par Lucien Etchezaharreta, journaliste, essayiste, fondateur et animateur de la revue littéraire "Maiatz".

Antolatzailea



Organisateur

Lota jauregia - KP 6 - 64480 UZTARITZE - Tel : 05 59 93 25 25 - eke@wanadoo.fr



# hitzak mintzo

**mintzaldiak  
martxoan,  
lau asteartez segidan,  
18:30ean  
Uztaritzen,  
"Lapurdi" aretoan**

- 7an : Andoni Egaña
- 14ean : Jean-Mixel Bedaxagar
- 21ean : Kirmen Uribe
- 28an : Lucien Etchezaharreta

Antolatzailea :




**EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE**



XIMA-SCHNEIDER - BAIONA 05 59 63 06 34

Martxoaren 7an,  
18:30ean



### Andoni Egana "Ahozketasunaz"

Andoni Egaña, oroz gainera bertsulari gisa ezagatua da, denek dakigun bezala, joan den abenduan laugarren aldikoz jantzi baitzuen txapela. Baina gogoetalarik gisa ere badu segur zer eta zer erratekorik, eta hain xuxen, azken denbora hauetan ahazketasunaren gaia landu du. Hona zer dioen :

*"Presunen arteko komunikazioa ahazko adierazpideen bitartez gauzatzen da gehienetan. Azken boladan ordea, adierazketasuna galdu dugu. Ez gara gai erran nahi dugun hura hartzaileari eragiteko moduan errateko. Badirudi gainera, ez zaigula erran-indarraren galera, askorik axola. Ahazketasunaren bigarren aroan bizi gara. Telebista, irati, telefono, telefono-mezu... gero eta beharrezkoagoa da ahazko hizkera ongi menperatzea eta paradoxikoki, oraintxe ari zaigu gehien pobretzen."*

Martxoaren 14ean,  
18:30ean



### Jean-Mixel Bedaxagar

Kantu hitzen gibelean,  
zer gordetzen da ?

Kantuz hasten deneko, bere botz bero, ozen eta indartsuarekin, Xuberoa agertzen da bere edertasunean. Eleka hasten deneko, Xuberoko kultura eta bereziki kantugintza arras ongi ezagutzen dituela berehala ikusten da. Eta azken urte hauetan, Jean-Mixel Bedaxagar gogoetatzen da jakin nahiz xuxen zer gordetzen den kantuen gibelean. Zeren, kantu bakoitzak zerbait kontatzen baitu, gehienetan hitz-erdika...

*"Hamabosgarren mendeko "Berterretxen kantoria"tik abiatuz, hemezortzigarren mendeko Beñat Mardo barkoxtarren "Jaun Barrua" ikertuz eta hemeretzigarren mendeko Pierre Topet-Etxahun koblakari bipilaren lau kantuen erranahiaz ariko naiz. Kantuak dira : "Maria Solt eta Kastero", "Ahaide delizius huntan", "Bi bertset dolorosik" eta "Munduan malerusik". Aldi guziz bertset garrantzitsuenak kantatuko ditut, ondotik ene ustez zer gordetzen duten argitara ekarriz."*

Martxoaren 21ean,  
18:30ean



### Kirmen Uribe Ahozketasuna eta poesia berria

Sortzez Ondarrutarra, Vitoria-Gasteizen bizi, Kirmen Uribe, gero eta ezagunagoa bilakatzen ari da literatura munduan, nahiz eta oraindik 35 urte baizik ez ukan. Olerkaria da, baita ere elaberri, entsaio eta antzerki idazlea. Berrikitan Kritikaren Sari Nazionala erdietsi du.

Bere olerkiak beste hizkuntzetara itzuliak izan dira, eta hain xuxen, Euskal kultur erakundeari esker "Bitartean, heldu eskutik" liburua Bègles hiriko argitaletxe batek frantsesez plazaratuko du. Bestalde, Kirmen Uriberen poemak musikatu ditu Mikel Urdangarin kantariak.

*Hona nondik nora ibiliko den gure hizlaria : "Ahozketasunak gero eta garrantzia handiagoa du gaur eguneko poesian. Poesia liburuak irakurterik gabe geratu diren garai hauetan, poesia bestelako formak hartu ditu liburuetatik at. Horren adibide garbia dugu mundu zabalean bizi-bizi dagoen Spoken Word fenomenoa. Poema-liburuak idatzi ez eta errezitalak egiten dituzten idazleak. Poemak errezitatzeko bakarrik. Gauza bera esan daiteke kantari buruz. Herri kantagintzari buruz. Poema eta kantaren arteko harremana estua izan da beti, poemak entzuteko izan dira literaturaren historiaren zatirik handienean. Gaur egunean ere, poemak kanta bilakatzen dira eta kantak sartzen dira poema-liburuetan. Honek guztiak galdera bat baino gehiago sortzen dizkio idazle garaikideari. Zer eragin du ahazketasun berri honek XXI. mendeko poesian ?"*